

Bilboko gobernuia eta erakunde-gatazkak Erregimen Zaharreko krisialdian (1760-1808)*

(The Government of Bilbao and institutional conflicts during the crisis of the Ancien Regime (1760-1808))

Martínez Rueda, Fernando

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fak. Garaiko Historia Saila. Sarriena Auzoa, z/g. 48940 Leioa
fernando.martinez@ehu.es

BIBLID [1136-6834 (2012), 38; 119-135]

Jaso: 2007.01.22
Onartu: 2012.07.04

Artikulu honek Bilboko hiribilduko gobernuia aztertzen du, bai eta kontzeju, Monarkia eta Jaurerriaren arteko instituzio-harremanak ere Erregimen Zaharraren bukaeraren garaian. XVIII. mendeko azken hamarkadetan eta XIX.eko lehenengo urteetan hiru izaki politiko horien artean izandako gatazka ugari eta larriak behatzen ditugu. Azkenik, gatazka horiek barne krisi sakon batera eraman zuten foru-sistema politikoa.

Giltza-Hitzak: Udal-agíntea. Bilbo. Bizkaiko Jaurerria. Instituzio-gatazkak. Monarkia. Foruak.

Este artículo analiza el gobierno de la villa de Bilbao y las relaciones institucionales entre el concejo bilbaino, la Monarquía y el Señorío a fines del Antiguo Régimen. Observamos los numerosos y graves conflictos institucionales que se produjeron entre esos sujetos políticos a fines del siglo XVIII e inicios del XIX y que, finalmente, condujeron al entramado político foral a una grave crisis interna.

Palabras Clave: Poder municipal. Bilbao. Señorío de Vizcaya. Conflictos institucionales. Monarquía. Fueros.

Cet article analyse le gouvernement de la ville de Bilbao et les relations institutionnelles entre le conseil de Bilbao, la Monarchie et le « Señorío » (la Seigneurie) à la fin de l'Ancien Régime. Nous observons les nombreux et graves conflits institutionnels qui se produisirent entre ces sujets politiques à la fin du XVIIIème siècle et début du XIXème et qui, finalement, conduisirent la trame politique forale vers une grave crise interne.

Mots-Clés: Pouvoir municipal. Bilbao. Señorío de Vizcaya. Conflits institutionnels. Monarchie. Fueros.

* Lan honek Eusko Ikaskuntzaren 2005. urteko Ikerketa Laguntza jaso zuen.

1. BILBO ETA BERE GOBERNUA XVIII. MENDEAN

XVIII. mendean Bilboko populazioa 13.000 biztanle ingurukoa zen. 1797. urtean eginiko erroldaren arabera ia 11.000 bilbotar bizi zen hiribilduan baina kopuru horri Bilbon denboraldi baterako zeuden 2.000 biztanle inguru (atzerritar, sasoiakako langile, Bizkaiko herrietako ikasle, hirian lanaren zain zeuden marine-lak eta abar) gehitu behar diogu. Hiribilduaren oinarri ekonomikoa merkataritza zen, nahiz eta artisautza eta administrazio-jarduerak ere garrantzitsuak ziren. Populazioaren banaketa sozio-profesionalari dagokionez, bilbotar gehienek artisautzan (1.500 behargin inguru 1797an), merkatal-lanetan (411 merkataritza urte berean) eta etxeko zerbitzuan (267 gizonezko eta 900 emakumezko 1797 erroldaren arabera) jarduten zuten. Bilbo Bizkaiko handiki nagusietako batzuen bizitokia ere bazen: 1797ko erroldan “*mayorazgo*” izenez aipatzen ziren 48 auzo, beren jabegoen errentatik etekin ederrak irabazten zituztenak. XVIII. mendean zehar izandako hazkunde demografikoaren ondorioz, bilbotarrak pilaturik bizi ziren hiri-espazio txiki eta estuan. Hiri-jabegoaren egitura desorekatua zen, maiorazkoek kontrolatzen baitzuten. Ondorioz, etxebizitza ikaragarri garestia zen, eta aldi berean irabazpide ederra jabe nagusientzat¹.

Hiri-erkidego horren antolabide soziopolitikoak eta gurea erabat desberdinak dira. Gaur egun ez bezala, hiria ez zuten gijababanako solteek osatzen, hiria ez zen gijababanakoan agregazioa soilik. Aitzitik, zenbait sarek eta erakunde kolektibok lotzen zituzten auzokoak, hiriko bizitza sozial eta politikoa bideratuz. Erakunde eta lotura horien artean lehena eta oinarritzkoena etxea zen, gijartearen egituratzaile nagusia baita sistema politikoaren ordezkartza-sistemaren oinarritzko zelula ere². Etxeaz gain, kaleak ere batzen zituen auzokoak, elkar laguntza eskainiz auzokoei eta beren betebeharrak bideratuz. Auzoteriaren baimena beharrezko zuten zenbait erabaki hartzeko, kaleko batzarrak biltzen ziren. Kale bakoitzeko auzokoek beren agintari eta segurtasuna zaintzeko erakundeak ere bazuten: kaleko kabua³.

1. SANTANA, A.: “La racionalidad de la arquitectura neoclásica bilbaína: soluciones para una ciudad ahogada”. In A. ORTEGA eta J.M. GONZALEZ CEMPELLIN (arg.): *Bilbao, Arte e Historia*, Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 1990; 255-260 or. MAULEON ISLA, M.: *La población de Bilbao en el siglo XVIII*, Valladolid: Universidad de Valladolid, 1961; 148-155 or. LABAYRU, E.: *Historia general del Señorío de Bizcaya*, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968; VI, 634-663 orr. AMB, Antigua, 275/1/6, 1787. AMB, Antigua, 276/1/49: *Estado general de la población de esta M.N. Villa de Bilbao, con distinción de clases y estados, número de edificios, oficinas y casas de caridad: con todo lo demás que previene la Real Orden comunicada por el Excmo Sr. Príncipe de la Paz en el presente año de 1797*.

2. IMIZCOZ, J.M.: “Las estructuras colectivas de la sociedad urbana en una ciudad del Antiguo Régimen (Vitoria, siglos XVI-XVIII)”. In J.M. IMIZCOZ (zuz.): *La vida cotidiana en Vitoria en la Edad Moderna y Contemporánea*, Donostia: Txertoa, 1995; 13-50 or. MARTINEZ RUEDA, F.: “Casa, familia y poder local en Vizcaya a fines del Antiguo Régimen”. In J.M. IMIZCOZ: *Casa, familia, sociedad: País Vasco, España y América, siglos XV-XIX*, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2004, 159-174 or.

3. AMB, Antigua, 471-2, 1743. *Las ordenanzas que tiene, usa y guarda la Muy Noble y Muy Leal Villa de Bilbao, Confirmadas por sus Magestades*, Imprenta Antonio de Zafra y Rueda, Bilbao, 1711, 17, 18, 84 kapituluak.

Bestelako erakunde kolektibo batzuk artisauen kofradiak ziren, ogibide-taldearen erlijiozkotasuna eta elkar laguntza bideratzen zuten eta artisauen interes komunak defendatzen zituzten. Merkataria Kontsulatuan biltzen ziren bitartean, mahastien jabeak San Gregorio de Nacienceno izeneko kofradia ahaltsuan lotzen ziren. Gizarteak eta zuzenbideak aintzatetsi egiten zituzten horrelako korporazioak. Hauek beren ohitura, pribilegio edo lorturiko ondare juridikoaren alde jokatzeko zuten. Logika korporatibo horri jarraituz eta bere gorenko mailan Bilboko hiria bera dugu. Gorputz sozial eta politiko horretan arestian aipaturiko korporazioak integratzen ziren, kontzejuak berorien arteko hartu-emonak arautzen zituelarik. Kanporantz ere, hiriak instituzio-harremanak bideratzen zituen, Koroarekin eta Bizkaiko Jaureriarekin batez ere. Hiriak bere jurisdikzio-esparrua, legedi berezia (Bilboko “konstituzioa”), berezko gobernu sistema eta agintari autonomoak ere bazituen.

Hiriko “konstituzioaren” kontzeptua Bilbok denboran zehar lorturiko ondare juridikoa adierazteko erabiltzen dugu⁴. Bere oinarrian hiri-gutuna dugu, 1300. urteko ekainaren 15ean Diego Lopez de Harok emana eta bere iloba eta ondorengoa María López de Harok berretsia 1310.ean. Hiri-gutunak jurisdikzio-esparrua zehatzen zuen (geroago murriztu zena), berezko agintarien bidez autogobernatzeko eskubidea ematen zuen baita pribilegio sorta bat, berorien artean Ibaizabal itsasadarreko merkatal monopolioa nabarmentzen zelarik. Hiriko konstituzioaren beste ardatza udal-ordenantzak ziren. Hiriko gobernuaren funtzionamendua eta bizitza kolektiboko adar nagusiak arautzen zituzten. Ordenantzak idazteko ekimena kontzejuari zegokion. Hirian onetsi ostean Koroak berretsi behar zituen. Bilbok lehenengo ordenantza orokorrak XVI. mendean onetsi zituen. 1622.ean ordenantza berriak idatzi ziren eta beroriek, 1682, 1711 eta 1797.ean ezarritako aldaketa edo eranskin batzuekin, indarrean egon ziren Erregimen Zaharrean zehar⁵. Azkenik, Bilboko kontzejuak beste erakundeekiko lehian lorturiko epaiek edo hitzarmenek ere osatzen zuten hiriko konstituzioa.

Garai hartan Estatuaren burokrasia oso eskasa zen eta, beraz, hiriko autogobernua oso zabala. Udal-erakunde eta agintariek era autonomoan kudeatzen zituzten bizitza kolektiboaren arlo nagusiak. Ordenantzak oinarri zituela, udalbatzak hainbat eta hainbat dekretu onesten zituen etengabe, komunitatearen bizi-modua arautuz. Bertako agintarien betebeharrak nagusietako bat komunitatearen hornikuntza segurtatzea zen eta horretarako mota askotako erabakiak hartzen ziren: prezioak ezarri, irina erosi garestialdian, okindegi bat eraiki XVIII. mendean bukaeran, salmenta prozesua ikuskatu, espekulazioaren kontrako neurriak hartu, eta abar. Hitz batean esanda, merkatal eredu komunitarioa ezartzen zen, nahiz eta XVIII. mendean espekulazioa eta merkatal askatasunaren aldeko lege-

4. Garaiko dokumentazioak berak erabiltzen du “konstituzio” hitza esanahi horrekin.

5. MAÑARICUA, A. E.: “Las ordenanzas de Bilbao en 1593”. In *Estudios de Deusto*, 2, 1953, 460-564 or. *Las ordenanzas que tiene, usa y guarda la Muy Noble y Muy Leal Villa de Bilbao, Confirmadas por sus Magestades*, Imprenta Antonio de Zafra y Rueda, Bilbao, 1711.

ak aurrera egin⁶. Kontzejuaren interbentzionismoa ez zen hornikuntza arlora mugatzen. Lan mundura ere hedatzen zen, zehaztasun handiz arautuz. Esate baterako, “*corredera*” eta kinkilarien beharra mugatzen zuen, maisu mailara iristeko aztertzaileak izendatzen zituen edota artisauen kofradien ordenantzak gainbegiratzen zituen...⁷ Kontzeju eta hiriko agintarien beste betebeharrak nagusietakoa bertako behartsuei laguntza ematea zen. Arlo honetan ere ekimen ugari bultzatzen ziren: udal-ospitalea finantzatu eta kudeatu; pobrezako aterpetxeak antolatu baita *Casa de Misericordia* ere sortu 1770. urtean; kaxako umeentzako edoskitzea ordaindu; ezbeharrean eroritako auzokoen eskaerei aurre egin, eta abar. Hala ere, agintariak bereizketa egiten zuten behartsuen artean: batetik, bertako pobreak, hau da, laguntza merezi zutenak; bestetik, arrotzak eta hauek behin eta berriro kanporatzen saiatzen zen Erregimentua. Azken finean, karitatea eta jarduera filantropikoak agintarien betebeharra ez ezik, komunitate-loturak eta ongizate komuneko ideia indartzeko tresnak ere baziren⁸. Hornikuntza, lan arloa edo gizarte babespena bezala, segurtasuna edo orden publikoaren eguneroko kudeaketa ere hiriko agintariak zegoen. Garai hartan koerzio erakunde berezirik ez zegoenez, orden publikoa modu komunitarioan zaintzen zen, hau da, auzokoei parte hartzen zuten udal buruzagien agindupean. Erregimentuak kale bakoitzeko bi kabu izendatzen zituen. Beroriei zegoen bitartekaritza lana agintari eta auzotiarren artean. Sute, matxinada edota gerra garaian kabuek auzoko mobilizatu eta antolatu egiten zituzten. Gaueko erronda egiten zuten, auzokoen laguntza⁹. Bestalde, udal-gobernuak beste ardura asko ere hartzen zuen bere gain

6. *Las ordenanzas que tiene, usa y guarda la Muy Noble y Muy Leal Villa de Bilbao, Confirmadas por sus Magestades*, Imprenta Antonio de Zafra y Rueda, Bilbao, 1711. AMB, ANTIGUA, 424/1/5: *Real Provisión de los Sres. del Real y Supremo Consejo de 2 de Abril de 1800 por la qual se reforman los Capítulos I y II de las ordenanzas establecidas para la mejor administración del posito, hornos, panaderías, molino y demás adherentes, en quanto a la presidencia de la junta de este establecimiento dada al Sr. Corregidor y se la confiere al Sr. Alcalde Juez ordinario de esta N. Villa*. THOMPSON, E. P.: “La economía moral de la multitud en la Inglaterra del siglo XVIII”, in *Tradición, revuelta y consciencia de clase*, Barcelona, 1979, 70-77 or. FRIEDRICH, C.R.: *Urban politics in Early Modern Europe*, London-New York: Routledge, 2000; 27-29 or.

7. AMB, Libro de actas 182, 7.3.1760, fol. 48; Libro de actas 202, 11.4.1780; Antigua, 481-1-70 (1757); Antigua, 25/1/25 (1798).

8. GRACIA, J.: “Orden y castigo: la vida cotidiana de los pobres en la Casa de Misericordia de Bilbao durante la crisis del Antiguo Régimen en el contexto de los hospicios coetáneos”. In *Estudios Históricos-Azterketa historikoak*, 5, 2000, 99-121 or. LABAYRU, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968; V, 99-121 or. AMB, Libro de actas 202, 11.5.1780, 148-149 or.; Libro de actas 182, 12-2-1760, fol. 27-28; Libro de actas 183, 12.2.1761, fol. 79; 23.7.1761, fol. 149; Libro de actas 185, 5.7.1763, 158-161 or. AMB, Antigua, 328/1/114: *Auto del Sr. Alcalde Mayor para que los mendigos sean restituidos a los pueblos de su vecindad o nacimiento de justicia en justicia* (1806). ISENMANN, E.: “Norms and values in the European city, 1300-1800”. In BLICKLE, P. (ed.): *Resistance, representation and community*, Oxford: Clarendon Press, 1998; pp. 185-213. SWEET, R.: *The English Town, 1640-1840. Government, society and culture*, New York: Longman, 1999; 99-105 or.

9. *Las ordenanzas que tiene, usa y guarda la Muy Noble y Muy Leal Villa de Bilbao, Confirmadas por sus Magestades*, Imprenta Antonio de Zafra y Rueda, Bilbao, 1711. AMB, Antigua, 195/1, *Reglamento de cabos de calle*. BEIK, W.: *Urban protest in Seventeenth Century France. The culture of retribution*, Cambridge, 1997, 82-90 or. GUIARD, T.: *Historia de la Noble Villa de Bilbao*, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1971; III, 45-50 or.

eta era autonomoan kudeatzen zuen: kanpoko etorkinei auzotasuna ematea ala ez erabakitzen zuen; ohitura eta portaera moralak ere arautzen zituen; hiri-osasun eta garbitasunaz arduratzen zen, eta abar. Hitz batean esanda, udal agintek bizitza kolektiboaren arlo nagusiak arautzen zituen, orden komunitarioa ezarri, gizabanakoa hiri-gizartearen menpean gelditzen zelarik.

Hala ere udal-gobernuaren autonomia paradoxikoa zen: alde batetik, oso zabala zen; baina beste aldetik beste erakunde batzuk, Monarkiak batez ere, baldintzatzen zuten hiriko autogobernua. Azken finean, hiriko pribilegioak –hiri-gutuna, ordenantzak...– Erregeak emanak edo onetsiak ziren. Udal-gobernuko erabaki nagusiek, batez zerga-politikarekin zerikusia zutenak, Erregearen berrespena beharrezko zuten. Are gehiago, salbuespenezko egoeretan Erregeak hiriko pribilegioak bertan behera utzi ahal zituen, Zamakoladaren garaian gertatu zen bezala. Hala ere, Monarkiak udal-aginteen beharra zuen, bai legea eta bere aginduak betearazteko, bai eguneroko herri-kudeaketa aurrera eramateko. Monarkiaz gain, beste erakunde edo korporazio politiko batzuk ere baldintzatzen zuten udal-gobernua. Adibidez, Korregidorea eta Bizkaiko diputazioa udalaren eskumenak mugatzen saiatu ziren behin baino gehiagotan, erakundeen arteko gatazkak sortuz.

Erregimentua zen udal-erakunde nagusia. Erregimentuak alkatea zuen buru eta berau, hiriko gobernua zuzentzeaz gain, epaile zen. Bere agintea eta ospea erregearen izenean epaile izatetik zetorkion hain zuzen, alkatea justiziako erretmakilaren behin-behineko jabea baizen. Alkateak, beraz, bi ezaugarri zituen: batetik, komunitatearen goreneko agintaria zen; bestetik, erregearen ordezkaria. Horrela alkatetzak lehen aipaturiko kontraesana (autonomia zabala eta erregearekiko menpekotasuna) islatzen du argi eta garbi. Udal-hierarkian alkatearen atzean sindiko nagusia dugu. Hiriaren ordezkari eta udal-ogasunaren kudeatzaile zen. 12 erregidorek udal-gobernuaren ardurak banatzen zituzten euren artean (mendiak, txiroak, gutunak jaso eta idatzi, hiri-garriketa, uraren hornidura, udal-bihitegia, merkatua, eta abar). Erregimentuak udal-burokrazia txikiaren laguntza bazuen: eskribau bat, Artigas eta Kastrexanako auzoak gobernatzeko bi fiel, elizako errito politikoak ospatzeko abade bat, udal-aginduak betearazteko juradoak, aipaturiko bi kabu kale bakoitzeko, eta abar. Erregimentua astean bi edo hiru egunetan batzartu ohi zen. Beren bilerak sekretuak ziren eta zinegotziek bertan eztabaidatutakoaren berri ez ematea zin egiten zuten¹⁰.

Erregimentua urtero berritzen zen. Hauteskundeak abenduaren 30ean egin ohi ziren. Hauteskunde sistema kooptazioan oinarritzen zen, hau da, kargua uzten zuten agintariak euren ordezkioak proposatzen zituzten. Hala ere, kooptazioak handikien artean sor zitzakeen tentsioak biguntzeko mekanismo insakulatorioak –zoria, alegia– ere erabiltzen ziren. Beraz, erregidore bakoitzak alkategai edo sindikogai bat proposatzen zuen eta gero zozketak erabakitzen zuen zeintzuk hartuko zuten alkate edo sindikoaren kargua, eta zeintzuk izango ziren erregido-

10. AMB, Antigua, 188, fol. 114, 1799. AMB, Segunda, 145, 98-100 or., 1800.7.16. AMB, Antigua, 355/1/26, 1830. *Las ordenanzas que tiene, usa y guarda la Muy Noble y Muy Leal Villa de Bilbao, Confirmadas por sus Magestades*, Imprenta Antonio de Zafra y Rueda, Bilbao, 1711.

reak. Edonola ere, hauteskunde sistemaren gakoak hautagaiek bete beharreko baldintzetan zetzen. Ordenantzek agindu bezala, Bilboko kasuan honako hauek ziren baldintzok:

[...] los tales tengan veinte y cinco años cumplidos, y mil ducados de hacienda, y de allí arriba; y que sean Hijosdalgo, limpios de toda mala raza, de moros, judios, nuevamente convertidos, y penitenciados por el Santo Oficio de la Inquisicion, asi de parte de Padre, como de Madre, y vezinos y naturales de esta Villa y Reinos; y estos hayan tenido en la villa vezindad de diez años y que no usen oficios mecanicos [...].¹¹

Ikusten dugun bezala, Erregimentua maiorazko eta merkatariek osatzen zuten elite txiki baten esku zegoen. Sarri askotan errealtate hori oligarkizazio prozesuaren ondorioa zela esan izan da. Baina, egia esan, udal-boterea ez zen inoiz demokratikoa izan arrazoi batengatik: Erregimen Zaharrean agintea status goreneko gizonen esku egon behar zela pentsatzen zen. Agintarien maila sozialaren bitartez hiriaren ohorea ere hobetzen zela uste zuten garai hartan. Are gehiago, gobernu aristokratikoa eta gobernu ona identifikatzen ziren, Bilboko Erregimentuak 1786.an Gastelako Kontseiluari aurkeztutako idazki batean zioen bezala:

[...] tanto para el empleo de Alcalde, como de regidores y sindico procurador se voquean las personas de la mayor Christiandad, desinteres, arraygo y experiencia de modo que siempre se constituye el Ayuntamiento de sugetos en quienes resplandecen estas circunstancias y consiguientemente el gobierno es excelente.¹²

Erregimentua erakunde oligarkikoa bazen ere, bere boterea mugatua zen. Goitik Monarkiak mugatzen zuen eta, arestian esan bezala, Erregearen baimena beharrezkoa zen Udalbatzak onetsiriko hainbat erabaki aurrera eramateko. Korregidoreak eta Bizkaiko Jaurreriko erakundeek ere zalantzan jartzen zituzten Erregimentuaren ahalmenak, batzuetan behintzat. Behetik hiri-erkidegoak ere mugatzen zuen elitearen agintea. Garrantzi handiko erabakiek auzotariaren onespina behar zuten, teorian behintzat. Horretarako XVIII. mende hasierara arte Erregimentuak auzoteria ordezkatzeko erakunde bat deitu ohi zuen, Kontseilu edegia, alegia. 1725. urtean erakunde hori bertan behera uztea erabaki zen. Hala ere, 1730. urtean Kontseilu edegia bildu egin zen eta 1735.ean bere deialdiaz etabaidatzen zen zerga berri baten ezarpena erabakitzerakoan. Kontseilu edegiaren ordezkari erakunde elitista bat sortu zuten: “caballeros patricios” deiturikoak, hau da, errejidoreek izendatutako handikien talde bat, 24 handiki gehienetan. Buruzagi talde hori Erregimentuarekin batera biltzen erabaki bat hartzeko arazo larrietan. Erregimentuaren esanetan, “*caballeros patricios*” izeneko instituzioak Kontseilu edegiaren aginte eta eskumen berdina zuen¹³. Bestalde, hiriko zenbait taldek edo korporazioak ere presioa egiten zioten Erregimentuari beren

11. *Las ordenanzas que tiene, usa y guarda...*, 2 kap.

12. AMB, Antigua, 188, 10 or.

13. AMB, Antigua, 20/1/4., 1725, 253/1/4, 1735. AMB, Libro de Actas185, 1763.4.12 (83 orr). MAULEON ISLA, M.: *La población de Bilbao en el siglo XVIII*, Valladolid: Universidad, 1961; p. 133. AMB, Antigua, 23/1/6, 1771.

aldeko erabakiak har zitzen: Kontsulatuak, jabeen edo artisauen kofradiak, kale bateko edo besteko dendariak, edo laguntza behar zuten auzokoak, eskaera eskubidea erabiliz¹⁴. Azkenik, autoritateko eredu komunitarioak (koerzio erakunde berezirik gabekoa) ere, Erregimentuaren boterea mugatzen zuen, gobernatuen lankidetzaren beharrezkoa zen neurrian behintzat. Kontutan hartu egoera larrietan (gera, istilu, matxinadak...), kaleko kabu eta udal agintarien esanetara, auzoko armatuak ziren ordena ezartzeko arduradunak. Horregatik autoritateko mekanismoak eta estrategiak deferentzian oinarritzen ziren. Eta deferentziako sentimendu eta harreman horiek hegemoniako erritualen bitartez lantzen ziren behin eta berriro urtean zehar. Boterearen antzerki hau modu askotara adierazten zen: alkatearen janzkera, “*golilla*” izeneko jantzi deserosoa¹⁵; justiziako erretmakilari ematen zitzaion esanahi ia magikoa¹⁶; prozesioak eta jurisdikzio bisitak; elizan ospatzen ziren errito politikoak (hauteskundeak, agintari berrien zina...); karitatezko egintzak edo portaera paternalistak, eta abar¹⁷. Ospakizun hauen helburua orden hierarkikoa finkatzea eta agintarien handitasun itxura ematea zen. Horregatik ere hiria bertako handiki ospetsuenek gobernatu behar zutela pentsatzen zen, deferentzian oinarritutako gobernu aristokratikoa ezarri.

2. HIRIBILDUA, MONARKIA ETA KORREGIDOREA

Hiria, bere konstituzio eta autogobernuaren jabe izanik, Monarkian integrazten zen. Aro Berriko Estatu Monarkikoa korporatiboa zen, hau da, hainbat izaki politiko elkarrekin bizi ziren, elkarreraginez, euren berezko ondare juridikoarekin, Erregearen arbitrajepean¹⁸. Testuinguru horretan kontzejuaren eginkizun nagusietako bat eta, beraz, agintarien betebeharra, hiriaren eskumen, autogobernu eta konstituzioa defendatzea zen. Instituzioen historiografia tradizionalak Monarkiaren hiribilduen autogobernuaren kontrako politika tinkoa eta zentralizazio prozesua aurrera eramanez zuela esaten zuen. Horregatik garai hartako sistema politikoari

14. VAN NIEROP, H.: “Popular participation in politics in the Dutch Republic”. In BLICKLE, P. (arg.): *Resistance, representation and community*, Oxford: Clarendon Press, 1998; 284-288 orr. AMB, Libro de actas 182, 48 orr.; AMB, Antigua, 27/1/21; AMB, libro de Actas, 183, 31, 79, 150, 169 orr.. AMB, Antigua, 26/1/3, 1799. AMB, Antigua, 355/1/26, 1830. AMB, Antigua, 253/1/76, 1751.

15. Serapio Múgica-k, bere *Geografía de Guipúzcoa* liburuan horrela deskribatzen zuen “*golilla*” izeneko jantzia: “zapato bajo con hebilla de plata, medias negras de seda, calzón corto, chaqueta ajustada con aldetas y vuelillos en los puños, capa de mucho vuelo con cuello alzado y esclavina, todo de terciopelo, espadín, gola al cuello y sombrero algo ancho de felpa de seda, con dos plumas”.

16. AMB, Libro de actas 202, 14.11.1780, fol. 301.

17. SCOTT, J.C.: *Los dominados y el arte de la resistencia*, Tafalla: Txalaparta, 2003; 79-106 orr. LOPEZ, R. J.: *Ceremonia y poder a fines del Antiguo Régimen. Galicia 1700-1853*, Santiago: Universidad; 1995. THOMPSON, E.P.: “Folklore, antropología e historia social”. In *Historia Social*, 3, 1989, 81-102 orr. AMB, Antigua, 195/1: *Instrucción para el Señor Síndico de la Noble Villa de Bilbao*; Antigua, 24/1/14, 1785. Libro de actas 202, 12.6.1780 eta 14.11.1780, fol. 301.

18. ESTEBAN, A.; FLORISTAN, A.: “Composición y gobierno de la Monarquía de España”. In FLORISTAN, A. (koord.): *Historia de España en la Edad Moderna*, Barcelona: Ariel, 2004; 270-271 orr. SWANN, J.: “Política y Estado en la Europa del siglo XVIII” In BLANNING, T.C.W.: “El siglo XVIII. Europa 1688-1815”, Barcelona: Crítica, 2002; 19-59 or.

Monarkia *Absolutoa* esaten zitzaion. Azken hamarkadotako historiografiak, aldiz, agerian utzi ditu Estatu Modernoaren mugak zentralizazio prozesua burutzeko. Aztergai dugun Bilboko kasuari dagokionez, kontzejuak XIX. mendearen hasierara arte autogobernu sendo eta zabala izan zuen.

XVIII. mendeko bigarren erdialdean Monarkia eta Bilboren arteko harremanak konplexuak eta paradoxikoak ziren, egungo pentsamolde politikotik ikusita behintzat. Batetik, Erregeak, bere arbitro lana eginez, hiri-eskumen eta pribilegioak babestu zituen momentu batzuetan behintzat. Bestetik, zenbait erreforma burutzeko helburuz, gobernatzeko modu berriak erabili zituen, bide exekutibo eta ministerialak bultzatuz, kontzejuen gaineko benetako kontrola ezartzeko arlo batzuetan behintzat. Politika hau udal-ogasuneko arloan gauzatu zen batez ere.

XVIII. mendearen hasierara arte udal-hazienda hiribilduaren –ez Estatu edo Monarkiarena– ondareztat hartzen zen. Horregatik kontzejuak administratzen zuen, kanpoko kontrolik gabe. 1714. urtean lehenengo aldaketa gertatu zen. Orduan Erregeak udal-kontuak Korregidoreak azter zitzala agindu zuen. Baina benetako aldaketa Despotismo Ilustratuaren garaian gertatu zen. 1760.ean *Contaduría General de Propios y Arbitrios* delakoa sortu zen, udal-ogasunak kontrolatzeko eta Monarkiaren interes orokorrekin lotzeko. Jaurerriak bere aplikazioa oztopatu bazuen ere, Koroak betearazi egin zuen 1778an. Urte hartan Bilboko hiriak bere kontuak aurkeztu behar izan zituen *Kontadurian*, honek gastu eta diru-sarrera araudi bat egin zezan¹⁹. Araudi berriak udal-autonomia mugatzen bazuen ere, ez zen erabat bete. Erreformak bi zutabe zituen: batetik, arestian esan bezala, erakunde zentral baten sorrera, benetako kontrola ezartzeko; bestetik, tokian-tokiko erakunde berri baten sorrera (*Junta de propios y arbitrios*), Korregidore edo Intendentearen zuzendaritzapean, udal-ogasuna kudeatzeko. Bilbon horrelako batzar bat sortu bazen ere, bere eskumenak oso mugatuak izan ziren. Bakarrik bi hilabetetan behin biltzen zen eta bere eginkizun bakarra udalaren ordainketa-aginduak onestea zen. Beraz, kontzejuak jarraitu zuen udal-hazienda kudeatzen. Saiakerak izan ziren batzordea indartzeko eta bere eskumena zabaltzeko. Hala eskatu zuen 1787ean urte hartako herri-diputatuak, Ibarra, baina alferrik. 1801. urtean Luis Marcelino Pereyra, Korregidorea, ere saiatu zen baina kontzejuaren erresistentziarekin topo egin zuen, auzi luze bat eraginez. Azkenik, Erregimentuak bere jarreraren aldeko erret-agindu bat lortu zuen: “que continúe como hasta aquí al cuidado del ayuntamiento de esta noble villa la administración, manejo y gobierno de los efectos de propios y arbitrios”²⁰.

19. AMB, Antigua, 5-2, 1591-1722. GUIARD, T.: *Historia de la Noble Villa de Bilbao*, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1971; III, p. 7. AMB, Antigua, 274 /1 /7, 1778, “Carta orden del Consejo dirigida por D. Manuel de Becerra con el Reglamento de las cargas y gastos que se deberan satisfacer de los caudales de propios y arbitrios de esta N. Villa con consideración al producto anual que tienen”.

20. AMB, Antigua, 188, 10-12 eta 22-23 or., “Representación de la villa al Consejo sobre administración de propios de 2 de abril de 1787”. AMB, Segunda, 146/1., 231 or. AMB, Antigua, 278/1/10.

Ikusten dugun bezala, Koroak Korregidore eta kontzejuaren arteko auzietan ere egiten zuen arbitro lana. Azter ditzagun, bada, Korregidore eta kontzejuaren arteko harremanak. Historiografia tradizionalak Korregidorea Estatuaren botere zentralaren ordezkartzat soilik hartzen zuen, aro garaikideko gobernadore zibilaren aurrekartzat alegia. Korregidorearen jarduera, ezta eskumenak ere, ordea, ez datoz bat eredu horrekin. Aitzitik, Korregidorea foru-legediaren erakundea zen eta Probintzia edo Jaurerriko epaile aritzen zen. Ahalmen juridikionala zuenez, lurraldeko gobernu eta administrazioan esku har zezakeen. Korregidorea foru-sistemako beste jurisdikzio eta botere batzuen ondoan zegoen, Jaurerriko Diputazioa edo herrietako alkateak, adibidez. Erakundeen arteko eskumen-esparrua ez zegoen argiro banaturik, beraien artean konkurrentzia sortuz sarritan. Eguneroko jarduera politikoan eta bide jurisprudenziala erabiliz zehazten zen erakunde bakoitzaren ahalmena²¹. Horregatik Monarkia eta bere epaitegiak hain garrantzitsuak ziren erakunde eta korporazioen eskumenak zehazterakoan.

Bilboko kasuan, beraz, gutxienez maila bereko bi agintari jurisdikzional genituen: bertoko alkatea eta Bizkaiko Korregidorea. Kontzejuak ez zion Korregidoreari inolako nagusigorik onartzen, apelazio epaiketetan izan ezik. Bilboko alkateak Korregidoreari ideaia hori adierazi zuen argi eta garbi 1778an Korregidoreari esanez euren jurisdikzioak berdinak zirela²². Eguneroko udal-politikagintzan Korregidoreak ez zuen protagonismo handirik. Ordenantzen 118 kapituluak zioen bezela, berari eta alkateari zegokien ordenantzak betearaztea: “Para que mejor se cumplan [las ordenanzas]; ordenaron: Que el Corregidor, o Alcalde desta Villa, las execute, sin que perjudiquen a la jurisdicción que cada uno tiene en cosa alguna”. Hauteskunde egunean bera zen Udalbatza buru, baita Erregimentuko bileretan ere baina gutxitan joan ohi zen, Erregimenduak deitzen zion gutxietan hain zuzen²³. Nolanahi ere, udal-agintariak Erregimentuari zegokiola hiriko administrazioa eta ez Korregidoreari esaten zuten. 1771. urteko idazki batean adierazi zuten argi eta garbi: “el Ayuntamiento tiene su separado gobierno del Corregimiento, con su Alcalde ordinario, y que éste, en asuntos contenciosos entre vecinos, ejercita la jurisdicción preventiva con el mismo Corregidor”²⁴. Planteamendu honen ondorioz, XIX. mendearen hasieran ere Erregimenduak autonomia handiz gobernatzen zuen hiribildua, Korregidorea lan horretatik baztertuz. Luis Marcelino Pereyrak, 1798tik 1804ra Bizkaiko Korregidoreak hain zuzen, alkatea eta erregimentua apurka apurka Korregidorearengandik independente bihurtu

21. HESPANHA, A.M.: *Vísperas de Leviatán*, Madrid: Taurus, 1989; 235-239 or. PORTILLO, J.M.: *Monarquía y gobierno provincial. Poder y constitución en las provincias vascas (1760-1804)*, Madrid: Centro de Estudios Constitucionales, 1991, 38-40, 308 eta jar.

22. ORTEGA GALINDO, J.: *Los Caballeros Corregidores del Señorío de Vizcaya (siglos XVII y XVIII)*, Bilbao, 1965, 275 orr. Bernabé Antonio de Egañak ere zera esaten zuen 1784ean Korregidoreari buruz: “no es Juez superior de las Justicias Ordinarias (excepto en los casos de apelación y agravio); antes bien, ejerce igual jurisdicción con ellas en primera instancia”. Cf. EGAÑA, B.A.: *Instituciones y colecciones histórico-legales pertenecientes al gobierno municipal, fueros, privilegios y exempciones de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*, Donostia: Diputación de Gipuzkoa, 1992; 75 or.

23. AHN, Consejos, leg. 1182-22.

24. ORTEGA GALINDO, J., *op. cit.*, 264 or.

zirela zioen eta udal-erabaki eta politikari buruzko informaziorik jasotzen ez zuela salatu zuen 1802. urtean²⁵.

XVIII. mendearen bigarren erdialdean gatazka batzuk izan ziren Korregidore eta hiriaren artean. Gatazka horien oinarrian arestian aipaturiko bi eragileak ditugu, hau da, alkate eta Korregidoaren parekotasun juridikzionala batetik, eta Erregimentuaren erresistentzia Korregidoreak parte har zezan udal-gobernua beste-tik. 1769.ean, Juan Domingo de Junco Larumbe Korregidorearen garaian, Gaztelako Kontseiluraino heldu zen auzi handi bat izan zen. Urte hartan alkateak Bilboko portutik itsasontzi bati artoa ateratzeko baimena eman zion. Jaurerriak protesta egin zuen, horrelako baimena ematea bere eskumena zela argudiatuz. Korregidoreak, Jaurerriarekin bat eginez, alkateari garaua ateratzeko baimenak ematea debekatu zion eta, gainera, 200 dukateko isuna jarri zion. Hiriak epaite-gietara jo zuen eta prozesu luze baten ostean, Gaztelako Kontseiluak bere alde-ko epaia eman zuen. Junco Larumbe Korregidoreak honako ondorio hau atera zuen: Bilbon alkateari Korregidoreari baino begirune handiagoa zioten²⁶.

1771. urtean Juan Domingo de Junco Larumberen ordez Manuel Joaquín de Salcedo izendatu zuten Korregidore. Kasu horretan ere tirabirak izan ziren Korregidore eta Erregimentuaren artean. 1774.ean erregidore talde batek Gaztelako Kontseilura jo zuen Korregidoreak esku ez hartzeko udal-gobernua eskatuz. Gai hutsaletan ere azaltzen zuten Erregimentuak bere autonomiari eusteko boronda-tea. Adibidez, 1776.ean, Gonzalo Galiano Korregidorea zelarik, kontzejuak berri-ro ere jo zuen Kontseilura esanez Korregidoreak "usurpatu" nahi ziola zezenketak baimentzeko eskubidea²⁷. Berriro ere gatazka instituzional bat sortu zen 1793an, Bilbo eta Jaurerriaren arteko harremanak oso okerrak ziren garaian. Testuinguru hartan Gernikako Batzar Nagusiek Korregimenduaren egoitza tokiz aldatzea (Bilboren ordez Gernika) erabaki zuten. Erabaki honek kontzejuaren protesta eragin zuen, Korregidorearen epaitegia urruntzea kaltegarria baizen hiriko zenbait talde-arentzat. Hala ere, Korregidoreak, Gabriel Amando Salidok, bat egin zuen Jaure-riarekin eta Gernikan ezarri zuen bere egoitza. Hiriak erabaki hau mendekua zela zioen, bere eskumenak eta pribilegioak defendatzeagatik Jaurerriak eta Korregi-doaren mendekua hain zuten. Auzia berriro ere Gaztelako Kontseilura heldu zen eta honek Korregidorearen egoitzak Bilbon jarrai zezala agindu zuen²⁸.

Ordura arte Korregidore eta hiribilduaren arteko gatazkak noizbehinkakoak eta arazo zehatz batek eraginak izan ziren. Baina 1798tik aurrera, Luis Marcelino Pereyra Korregidore izendatu zutenetik hain zuten, noizbehinkako gatazka horiek

25. AHN, Consejos, leg. 2092-21, 1802.

26. AHN, Consejos, leg. 37790, 1772. AHM, Antigua, 267, 1769. ORTEGA GALINDO, J., *op. cit.*, 264 or.

27. AHN, Consejos, leg. 29202-24, 1774. AHN, Consejos, leg. 12685.

28. AMB, Antigua, 25/1/7: *Real Provisión de los Señores del Consejo de 16 de Marzo de 1793: por la qual se manda al Corregidor de este M.N. Señorío de Vizcaya haga su residencia en esta N. Villa de Bilbao; y no en la de Guernica, como lo había determinado la Junta General.* ORTEGA GALINDO, J., *op. cit.*, 297-298 or.

etengabeko guda instituzional bihurtu ziren. Pereyraren pentsamolde politikoa eta hiri-agintariena erabat desberdinak ziren. Pereyraren ustez, Korregidoreari zegokion herrien gobernua. Bazekien Bilbon alkateak eta Erregimenduak hiria gobernatzen zutela Korregidoreak esku hartu barik. Baina bere ustez hori azken korregidoreen erruz gertatzen zen, eurek utzi baitzieten alkate eta Erregimentuari "independiente" bihurtzen. Pereyraren aburuz, Korregidorea eta alkatea ez ziren inolaz ere maila bereko karguak. Aitzitik, Korregidorea nagusia izan behar zen, Erregearen ministro bakarra baizen Bilboko hirian. Beraz, Korregidorearen eskumenak ahultzea Soberanoaren boterea makaltzea zen²⁹. Hiriko agintarien iritziz, ordea, Bilbo gobernatzea bere alkate eta erregimentuari zegokien, ez beste inori, ezta Korregidoreari ere:

Se ha tenido siempre y se tiene por peculiar y privativo de la Justicia y Regimiento de este Noble Villa el Gobierno político y económico de ella, sin que los Sres. Corredores de Vizcaya (...) puedan interrumpir y mezclarse en sus funciones.³⁰

Gauzak horrela, hiria gatazkarako prestatzen hasi zen. Batetik, Gortean bere eskumen eta pribilegioak defendatzeko babesle boteretsuak bilatu zituen. Francisco Policarpo de Urquijorengana (*Alcalde de Casa y Corte*, 1794ean, eta Gaztelako Kontseiluaren kide, 1799an) eta bere semearengana, Mariano Luis (Estatuko idazkaria 1799 eta 1800an) jo zuen Bilbok. Udal-agintariak Policarpo de Urquijo hiriaren babesle berezizat hartzen zuten. Hiriaren eskubide eta usadioak ezagutzen zituen eta defendatzeko prest zegoela aitortzen zuten Bilboko buruzagiek. Policarporen bitartez hiria bere semearengana hel zitekeen eta honek, Estatuko Ministro izanik, Erregearekin harreman zuzena zuen. Horrela Bilbok bere ikuspuntuak eta eskakizunak Erregeari helarazten zizkion, hiriko agintariak aitortzen zuten:

[...] teniendo la dicha esta Noble Villa de hallarse cerca del trono tan poderoso protector, a quien con la satisfaccion de hijo y la experiencia de ser bien recibida, puede acogerse con entera confianza [...].³¹

Babesle ahaltsuak ez ezik, argudio juridikoak ere behar zituen Bilbok bere jarrera defendatzeko. Horregatik, Gortean zuen agenteari, Ignacio Machucari, agiriak bilatzeko agindu zion. Machucak aurkitu ez zuenez, udal agintarien argudio nagusia usadioa izan zen:

La costumbre inmemorial y posesion en que esta el Ayuntamiento de entender en todo lo gubernativo y económico pribatibamente sera un escudo bastante fuerte para contener cualquiera intentona [del Corregidor].³²

29. AHN, Consejos, 2092-21, 1802.

30. AMB, Antigua, 188, 114 or., 1799.

31. AMB, Antigua, 188, 103 eta 109 or., 1799.

32. AMB, Antigua, 188, 114 or., 1799.

Lehenengo bataila 1799. urteko azaroan hasi zen, Korregidoreak hiriko antzokiko araudiari buruzko ediktu bat plazaratu zuenean. Erregimenduak ez zuen onartu, gobernuko aginduak ematea udal-agintarien eskumena zela, eta ez Korregidorearena, argudiatuz. Hiriak Erregearengana jo zuen eta, Urquijotarren eraginari esker, bere aldeko erret-agindua lortu zuen, Gaztelako Kontseiluak behin betiko epaia eman arte³³. Baina 1801. urtean Luis Mariano de Urquijok bere kargua galdu zuen eta gainbehera politikoa jausi zen. Pereyrak egoera berria aprobetxatu zuen eta 1801.eko ekainean erret-agindua lortu zuen, Bilboko antzokiko ardura bere gain jarritz³⁴. Baina auzi horretaz gain, hiria gobernatzeko Korregidorearen ahalmena zegoen jokoan. Horregatik Pereyrak arlo guztietan esku hartzeko saiakerak egin zituen, auzi berriak eraginez: 1801. urtetik ez zuen Erregimentuaren autonomia onartu udal-hazienda kudeatzeko; udal-bihitegi, okindegi edo errotan ere esku hartu zuen; bere baimenik gabeko udalbatza debekatu zuen, eta abar³⁵. Erregimentu eta Korregidorearen arteko etengabeko gatazkek Bilboko bizitza politikoa gelditu zuten garai hartan. Azkenik, hiriak Erregeari Korregidorea bere kargutik ken zezala eskatu zion, baina alferrik. Pereyrak, bere aldetik, Bizkaiko Jaurerriko oreka politikoa aldatzea planteatu zuen, boterea kontzentratuz³⁶, udal-aginteen kaltetan eta noski Bilboko pribilegio eta autogobernuaren kaltetan. Egitasmo politiko horrekin Jaurerria ere ados zegoen erabat, Bizkaiko agintariek ere gatazka ugari izanak baitzituzten Bilboko kontzejurekin.

3. BILBO ETA BIZKAIKO JAURERRIA

Bizkaiko gainontzeko hiriak bezala, Bilbo eta Erregearen artean bestelako gorputz politiko bat ere bagenuen: Bizkaiko Jaurerria, non Bizkaiko beste lurralde-izakiak ere (Enkarterriak, Durangaldeko Merinaldea, beste hiribilduak, Orozko-ko arana, elizateak...) integratzen ziren. Guztien artean osatzen zuten Jaurerria, lege-ondare komuna baizuten (Bizkaiko forua) eta bere babeserako, besteak beste, batzen ziren. Gatazka ugarien ostean, elizate eta hiribiduen arteko batasunaren baldintzak 1630eko Konkordian zehaztu ziren. Horren arabera Jaurerriko kide guztiak gorputz politiko komunean modu berdintsuan integratzen baziren ere –“todo ha de ser una república sin ninguna distinción”, esaten zen-, hiribilduek bere gobernu sistema berezia mantentzen zuten³⁷. Beraz, Bilbok izaera politiko bikoitza zuen: batetik, *Probintziako Gorputzeko* kide zen; bestetik, berez zen izaki politiko, bere “konstituzio” eta autogobernuaren jabe. Eta bikoiztasun horrek kontraesan eta gatazka ugari eragin zituen hiria eta Jaurerriaren artean. Joera gatazkatsu hori XVIII. mendean areagotu zen, garai hartan aginte probintziala

33. AMB, Antigua, 188, 119 orr., 1799.

34. AMB, Segunda, 146-1, 1801, 220 or. AMB, Antigua, 279-1-10.

35. AMB, Antigua, 278/1/3, 1801. AHN, Consejos, 2092-21, 1802. AMB, Segunda, 146/1, 197-205 or.

36. PORTILLO, J.M.: *Monarquía y gobierno provincial...*, op. cit., 286-287 or.

37. Honako baldintza hauekin sartzen ziren hiribilduak jaurerrian: “en el estado en que se hallaban en sus gobiernos particulares, gobernándose como hasta aquí y con las mismas leyes”. LABAYRU, E.: *Historia general...*, op. cit. V, 674-677 or.

indartuz joan baizen. Horren kontra Bilboko erresistentziak sortu ziren, hiriak bere pribilegioak eta autogobernua defendatu zituelarik. Gatazka horietan Koroak berriro ere arbitro lana egin zuen. Bitartean, bai kontzejuak bai Jaurerriak Korte-an babesleak bilatzen zituzten, hartu-emon klientelarrak garatuz. Baina ikus ditzagun zehatzago, bada, gatazka horien izaera, bilakaera eta ondorioak.

XVIII. mendeko bigarren erdialdeko lehenengo gatazka handia 1759.an hasi zen. Urte hartan Bilbon bizi zen frantziar merkataria batek, Luis de Sessart-ek, bere kaparetasuna frogatzeko prozesua eskatu zuen. Kaparetasuneko jurisdikzioa Diputazioari zegokion baina hiriko sindikoak ere hartzen zuen parte. Prozesuan zehar Bilboko sindikoak Sessart-ek irain egin ziola salatu zuen eta kereila aurkeztu zuen alkateko auzitegian. Orduan Diputazio eta alkatearen arteko esku-duntza-arazoa sortu zen. Biek epaitu nahi zuten auzia: Diputazioak kaparetasun-azua zela zioen; alkateak iraineko auzizat jotzen zuen eta beraz bere ohizko jurisdikzioa. Baina auziaren azpian lehiaren gakoa jurisdikzio-lehentasuna zen, batzuk eta besteen argudioek islatzen dutenez argi eta garbi. Adibidez, bere autogobernua defendatzeko hiriak 1630.ko konkordia gogorarazten zuen. Villabaso izeneko Alkateak Diputatuek ez zutela inolako eskumenik hirian, apelazio-epaiketari izan ezik, idatzi zuen. Diputazioak Villabasoren idazkia Bizkaiko buruzagitzaren kontrako iraintzat hartu zuen. Ondorioz, Gernikako Batzar Nagusiek 6 urteko inhabilitazio zigorra ezarri zioten Jaurerriko kargu publikoak hartzeko eta idazkiaren erreketa publikoa ere ebatzi zuten. Auzia urtetan zehar luzatu zen epaitegietan. Azkenik akordio anbiguo baten bitartez amaitutzat eman zen 1764. urtean. Bilboko agintariek Diputazioaren kaparetasuneko jurisdikzioa onartu zuten. Halaber, Korregidore eta Diputazioaren autoritatea ez zutela zalantzan jarri nahi izan aldarrikatu zuten. Jaurerriak, bere aldetik, Villabasoren kontrako zigorra barkatu egin zuen eta alkatearen lehen instantziako jurisdikzioa ez zuela apurtzeko borondaterik izan baieztatu zuen³⁸.

Aurreko akordioa sinatu zen urte berean, 1764ean alegia, Monarkiak Urduñako bidea eraikitzeko baimena eman zuen. Finantzazio arazoak zirela eta egitasmo hori ez zen ordura arte gauzatu. Bidearen lanak ordaintzeko Bilbo, Kontsulatua eta Jaurerria akordio batera heldu ziren: erakunde bakoitzak gastuen herena jarriko zuen. Handik gutxira hasierako aurrekontua (210.000 peso) ez zela nahiko konturatu ziren eta, beraz, diru gehiago ekarri beharra zegoen. Tesuinguru horretan tirabira ugari sortu ziren Jaurerri eta kontzejuaren artean, bien arteko harremana okertuz. Adibidez, 1768etik hiriak fogera-banaketa ordaintzeari utzi zion eta Jaurerriak ezarritako pattarraren gaineko arbitrioari uko egin zion. 1773.an akordio batera heldu baziren ere, behin eta berriro auzi berriak sortu ziren Urduñako bidearen finantziarioaren inguruan, 1793.era arte. Urte hartan Kontsulatuak, hiriak eta Jaurerriak sinaturiko akordioari esker, konpondu ziren bidearen gastuen auziak. Hala ere, ogasun arloko gatazkak jarraitu zuten eta XIX. mendeko lehenengo urteetan areagotu egin ziren, geroago ikusiko dugun bezala. Azken finean, ogasuneko auzien atzean bi egitasmo politiko desberdin estaltzen ziren: bata, Bilbokoa, hiriko pribilegio eta autogobernuan oinarritzen zen; beste-

38. PORTILLO, J.M. *Monarquía y gobierno provincial*, op. cit., 397-399 orr. GUIARD, T.op. cit., 226-228 or. AMB, Antigua, 22/4/10. AMB, Libro de actas 182, 129 or., 1760.

ak, Jaurerrikoak, probintziako administrazio sendoa eraiki nahi zuen, udal-aginteen gainean nagusigoa izango zuen probintziako agintea alegia³⁹.

1789ean, hau da, krisi eta eskasiako urtean, hasi zen gatazka berri bat Diputazio eta kontzejuaren artean. Testuinguru hartan Bilboko portura heltzen ziren premiazko elikagaien hornikuntza kontrolatzeko auzia izan zen. Diputazioak irin kopuru handia eskatu zion kontzejuari premian zeuden Bizkaiko herriei laguntza emateko. Kontzejuak hiritik elikagaiak ateratzeko baimena ematea alkateari zegokiola jakinarazi zion Diputazioari. Ikus dezagun zelakoa izan zen Aldundiaren erantzuna:

La villa no puede ejercer esta autoridad ni poner ley a los pueblos que no son de su jurisdicción. Ella misma reconoce que es hija del Señorío igualmente como cualquiera otro pueblo. La Diputación que inmediatamente representa al cuerpo de este Señorío, es el Padre de todos, y de consiguiente a esta corresponde encargarse de los granos y de su distribución [...].⁴⁰

Horiek horrela, arlo horretan ere auzi luze bat izan zen. Baina amaitu baino lehen beste gatazka handi bat lehertu zen. 1790. urtean kontzejuak Corpus Christiko prozesioari distira emateko auzoko armatuak ateratzea erabaki zuen. Jaurerriak erabaki hori oztopatu zuen, kontzejuak armatuak ateratzeko eskumenik ez zuela esanez, Diputazioaren ahalmena zelakoan. Berrito ere gatazkaren gakoa honako hau zen: Foru-agintarien ahalmena hiriko gobernuan esku hartzeko eta berorien nagusigoa hiriko buruzagien gainean. Udal-agintarien ustez, hiri-bildua Bilboko alkateak eta Erregimentuak gobernatzen zuten, Diputazioak horretarako eskumenik izan barik. Diputazioaren diskurtsoa erabat desberdina zen: Jaurerriaren lehenatsuna aldarrikatzen zuen eta, beraz, kontzejuak Diputazioaren agindua bete beharra zituen. Ez da harriztekoa, bada, gatazka hau beste arlo batzuetara ere hedatzea: gastu komunak eta Jaurerriko ogasuna; Diputazioaren egoitza non kokatu behar zen; premiazko elikagaiak hiritik ateratzeko baimena ematea zein erakunderi zegokion; eta abar. Testuinguru horretan Jaurerriak Bilboko hiriari Diputazioa aukeratzeko hauteskundeetan boto emateko eskubidea kendu zion. Gai hauetaz guztiez behin eta berriro auziak sortzen ziren, hiriak zein Jaurerriak beren argudioak aurkezten zituzten Gortean eta gatazkak luzatzen ziren⁴¹. Euren tirabirak konpontzeko hiriak eta Jaurerriak arbitrajea onartu zuten, Diego Gardoquiren bitartez, Ogasuneko Ministro bilbotarra alegia. Azkenik, 1793 abenduan hitzarmena sinatu zuten: hiriak Jaurerriko ogasunari eman beharreko dirua zehaztu zen; hiriak kanpotik etorritako agindu guztiak Diputazioari aurkeztea onartu zuen, horrek foru-pasea eman zezan; Jaurerriak Bilboko hornikuntzari buruzko ordenantzak errespetatzeko hitza eman zuen; hauteskunde eta Diputa-

39. Bizkaiko ogasun-administrazioari buruz jarraitzen dugu LOPEZ ATXURRA, R.: *La administración fiscal del Señorío de Vizcaya (1630-1804)*, Bilbao, 1999. Bilbao eta Jaurerriaren arteko tirabirara eta akordioei buruzko informazioa: AMB, Antigua, 267, Pablo Basarrate (1758) eta Agustín Ortiz de Zarate (1766) sindikoen txostena; AMB, ANTIGUA, 448/1/27, *Escritura de transacción entre las tres comunidades de Señorío, Villa de Bilbao y su Ilustre Consulado*, 1773; AMB, ANTIGUA, 485/1/38, 1793.

40. AMB, Antigua, 322/1/18 a 22. AMB, Antigua, 73/1/2.

41. AHN, Consejos, 2150/33. AMB, Antigua, 324/1/1 eta 25/1/2.

zioko egoitzari buruzko Jaurerriko erabakiak bertan behera gelditu ziren. Auzokoa armatzeari dagokionez, armatuak kaleratzeko eskubidea onartu zitzaion kontzejuari, baina honek Diputazioa agintari militar nagusizat hartzen zuen. Gatazka guztien gakoari dagokionez –jurisdikzio-lehentasuna, alegia– oso adierazpen orokor eta anbigua adostu zen, bi gorputz politikoen eskumenak onartzuz:

Que dicha noble villa de Bilbao ni su Ilustre Consulado no han pensado, ni quieren el que directa, ni indirectamente se contravenga a los Fueros, constitucion, buenos usos y costumbres de este M. N. y M. L. Señorío de Vizcaya, ni a la Jurisdiccion, autoridad y facultades de sus Juntas generales y de merindades, regimientos y diputaciones generales, ni del tribunal de Justicia de los Señores Correxidor y Diputados Generales, ni el que se disminuyan sus derechos en parte alguna, como ni tampoco este M. N. y M. L. Señorío, sus Juntas Generales, Regimientos y Diputación, ni Tribunal de los Señores Correxidor y Diputados Grales el que se contravenga, ni roce directa ni indirectamente lo que corresponda a la villa por sus ordenanzas, Reales Cédulas, Privilegios, Provisiones Cartas executorias, buenos usos y costumbres y la Escritura de Union o concordia de las villas y ciudad con este Ilustre Solar confirmada por S.M. (que Dios Guarde) ni la jurisdiccion que corresponde por ellas a su Alcalde y Ayuntamiento [...].⁴²

Ikusten dugun bezala, 1793ko hitzarmenak hiria eta Jaurerriaren arteko instituzio-oreka ezegonkorra berresten zuen. Ez da harritzekoa, beraz, betiko gatazka zaharrak berriro ere sortzea XVIII. mendearen bukaeran. Ostera ere kontzeju eta foru-agintariak lehian ikusten ditugu baita auzi berriak ere: zeini zegokion elikagaiak Bilbotik ateratzeko baimena ematea; ea Bilboko alkateak bazuen ala ez inguruko elizateetan jurisdikzio-ekintzak egiteko ahalmena; foru-agintari eta alkatearen arteko eskuduntza-arazoak, eta abar⁴³. Aldundiak hiriko gobernuan esku hartzeko eskubidea defendatzen jarraitzen zuen bitartean, kontzejuak betiko diskurtso politikoari eusten zion, Diputazioaren botere jurisdikzionala ukatuz, alkatearen agintearen mesedetan:

No puede haber competencia sino entre dos juezes; Vmd [el alcalde] lo es por el Rey como su Alcalde y Juez ordinario en esta villa y los señores Diputados Grales no tienen mas jurisdiccion que la limitadisma de Fuero; a saber, en primera instancia en las causas de filiacion juntamente con el señor corregidor y no por si solos; y los recursos de apelacion sugetos a las leyes del titulo 29 (...). Toda jurisdiccion ha de ser o por el Rey o por la Ley; por la ley ninguna absolutamente tienen los Señores diputados grales; tampoco por el Rey interin no manifiesten otra distinta Real orden o Privilegio.⁴⁴

Konbentzio Gerraren ostean foru eta udal-ogasunak ikaragarri zorpetuta gelditu ziren. Horrez gain, Monarkiaren diru-eskaerak areagotu ziren. Testuinguru horretan Jaurerri eta Bilboren arteko gatazka handienak ogasun arlokoak izan ziren garai horretan. Batetik, gerrako gastuen inguruko tirabirak izan ziren. Uda-

42. AMB, Antigua, 485/1/38.

43. AMB, Antigua, 25, 1797; Antigua, 327/1/49, 1800; Antigua, 329/1/37, 1802; Segunda, 145, 1800; Segunda, 146/1, 1800.

44. AMB, Segunda, 145, 98 or., 1800.

lak gerra garaian egindako troparen mantenuko gastuak zirela eta Jaurerriari eskatzen zion dirua eta desadostasun hori konpondu bitartean ez zion Bizkaiko ogasunari ordaintzen, 1793.eko hitzarmena bete barik. Azkenik, 1800. urtean akordio batera heldu ziren bi erakundeak⁴⁵. Bestetik, zerga-agintea zela eta gatazka larri bat hasi zen urte horretan bertan. 1630.eko Konkordiako zerga-filosofia -horren arabera, fogera-banaketa Jaurerriaren oinarritzko diru sarrera zenez zen gauza Konbentzio Gerraren ondorengo egoera berriari (udal eta Jaurerriari zorrak, Monarkiaren eskaera berriak...) aurre egiteko. Hori dela eta 1795.tik Jaurerriak kontsumoaren gaineko arbitrioak eta zuzeneko zerga berriak proposatu zituen⁴⁶. Erregeak eskaturiko 300 milioitako donatiboak ordaintzeko Merindadeko Batzarrak zenbait merkatal-produkturen gaineko arbitrioak onetsi zituen. 1800. urtean Bilbok ez zuen erabaki hori onartu, protesta egin zuen eta Kontsulatuarekin batera Erregearengana jo zuen. Kontzejuak ez zuen Jaurerriaren agintea fiskala onartzen, batez ere merkatal-zergak ezartzeko, eta 1630.eko Konkordiako ogasun-politika eskatzen zuen. Hala ere, 1802.ko Erret-aginduak uko egin zion kontzejuaren eskaerari eta arbitrioak ordaintzeko agindu zion⁴⁷. Bien bitartean, Diputazioa ere hiriaren botere fiskala oztopatzen saiatzen zen, 1801.ko uholdeko gastuei aurre egiteko kontzejuak ezarri nahi zituen arbitro berriei uko eginez edota Atxuriko lur publikoen salmenta eragotziz⁴⁸. Azken finean, Jaurerriaren helburua Bilboko indar ekonomikoa ahultzea zen, hiriaren kontrako behin betiko erasoak prestatzen ari zen unean hain zuzen.

Botere probintzialaren kontrako Bilboko erresistentziak indargabetzeko estrategia berria erabili zuten Bizkaiko agintariek, Simón Bernardo de Zamakola eskribau dimatarra buru zutela. Estrategia berriaren ardatza hiriko oinarri ekonomikoa, hau da, itsasadarrean zuen merkatal monopolioa, deuseztatzea zen. Abandoibarran Jaurerriaren agintepean egongo zen merkatal-portu berri bat ezartzea zen helburua. Horretarako Erret-baimena beharrezkoa zen. Merkatal-portu berria erreforma-egitasmo zabalago baten elementu bat baino ez zen. Erreforma horren helburua botere probintziala finkatzea eta Jaurerriko administrazioa zentralizatzea zen, mendeetan zehar izandako korporazio batzuen erresistentziak gaindituz. Testuinguru horretan kokatu behar dugu XIX. mendearen hasieran gertaturiko Enkaterrietako kontzejuen behin betiko integrazioa Jaurerriari. Baita *Puerto de la Paz* izeneko egitasmoa ere⁴⁹.

1801. urteko Batzar Nagusietan Zamakolak planteatu zuen bere asmoa eta Gernikako asanbladak Abandoko portu berrirako Erret-baimena lortzeko gestioak hasi zitezkeen erabaki zuen. Abenduaren 31ko Erret-aginduak baiezkotzea eman zion Jaurerriari. Hala ere, Bilbok bere protesta aurkeztu zion Erregeari eta 1802.ko otsailean aurreko erabakia bertan behera gelditu zen behin-behinekoz. Harrez gero partida Kortean jokatu zen. Bai Jaurerriak bai kontzejuak euren ordezkariak

45. AMB, Antigua, 327/1/29; 491/1/14; 491/1/9.

46. LÓPEZ ATXURRA, R., *op. cit.*, 813 eta jar. or.

47. AMB, Segunda, 146/1; Antigua, 279/1/37.

48. AMB, SEGUNDA, 146/1, 1801.

49. LÓPEZ ATXURRA, R., *op. cit.*, 383-401 or.

bidali zituzten Madrilera. Beren ikuspuntuak defendatzeko biek ospe eta aginte handiko babesleak bilatu zituzten, harreman klientelarrak garatuz. Hiriak Indieta-ko Kontseiluko kidea zen Juan Ignacio Gardoqui bilbotarraren laguntza izan zuen⁵⁰. Gardoquiren bitartez, Godoyrengana hurbildu ziren Bilboko ordezkariak. Hasiera batean, behintzat, hiriko agintariek Godoyren babesa zutela pentsatu zuten eta horren truke deferentziatzko keinuak egin zituen kontzejuak. Adibidez, 1803. urtean alkate izendatu zuten eta Godoy-ren erretratua eskatu zioten Goya pintoreari, hiriaren babeslearen irudia udaletxean eskegitzeko asmoz. Are gehiago, anbiguotasun handiko adierazpenak eginez, Godoy-k hiria babestuko zuela ematen zuen, hiriari bidalitako honako gutun honek erakusten duenez:

La Gloria de la Nacion ocupa solamente mis desvelos, vaxo de este principio pro-
texto todo establecimiento veneficioso al estado, y si viera decaer el celebrado y acti-
vo comercio de esa villa procuraría sostenerle por quantos medios fuesen dables y
alcanzasen mis vivos deseos [...].⁵¹

Bien bitartean, Bilbo eta Bizkaiaren arteko auzia luzatzen zen. Aldi berean, Monarkiaren papera indartzen zen, bi gorputz politikoak Erregearen erabakiaren zain zeudelarik. Azkenik, Godoyren erabakia Jaurerriaren aldekoa izan zen, merkatal-portu berria baimenduz. 1804.eko Batzar Nagusietan proiektuaren aurrera-pausoen berri eman zuen Zamakolak, baita portu berriaren izena iragarri ere: Puerto de la Paz, Godoyren omenez. Jakina denez, Zamakolada izeneko matxinadagatik planak huts egin zuen. Antza denez, proiektuaren erret-baimenak Zamakolak 1804eko Batzar Nagusietan ere proposaturiko soldadutza sistema berriarekin zerikusia zuen. Horrek, foruen kontrako soldadutza izanik, matxinada eragin zuen. Beraz, Jaurerri eta kontzejuaren arteko instituzio-krisia gizarte-gatazka bihurtu zen. Monarkiak armada bidali zuen Bizkaira, hiriaren autogobernua bertan behera utzi eta foru-sistemaren jarraipena zalantzan jarri zuen.

Azaldutako prozesuaren ondorioa honako hau da: XVIII. mende bukaeratik foru-erregimena barne krisi sakon batean murgilduta zegoen. Eskuduntza-arazoe-
k, pribilegioaren logikak eta Bilboko erresistentziek kolapsora eramana zuten foru-sistema. Horrez gain, 1804. urtetik aurrera ezegonkortasun politiko ikaragarria pairatu zuen Bizkaiak: Zamakolada eta bere ondorioak; Independentziako gerra; Iraultza liberala eta Cadizeko Konstituzioa; Absolutismoaren berrezarkuntza azkenik. Egia da kataklismo politiko horren ostean foralitatea berrezarri egin zela. Baina berrezarkuntza hori ez zen aurreko sistemarako bueltatze bat, oinarri berri batzuen gaineko berreraikuntza baizik, foru-sistema berriak korporazio aniztasuna eta tokian tokiko autonomiak deuseztatu baitzituen⁵².

50. AMB, Antigua, 276/1/5, 179 or., 1802eko otsailaren 27ko gutuna.

51. AMB, Segunda, 146/1, 159-169 or.; AMB, Antigua, 188, 1803ko urtarrilaren 17eko gutuna.

52. Bilakaera horretaz vid. AGIRREAZKUENAGA, J.: *Vizcaya en el siglo XIX: las finanzas públicas de un Estado emergente*, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1987. PORTILLO, J.M.: *Los poderes locales en la formación del Régimen Foral. Guipúzcoa, 1812-1850*, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1987. PÉREZ NUÑEZ, J.: *La Diputación Foral de Vizcaya. El régimen foral en la construcción del Estado Liberal (1808-1868)*, Madrid: Centro de Estudios Constitucionales, 1996. MARTÍNEZ RUEDA, F.: *Los poderes locales...*, op. cit., 254-310 or.